

J. B. ELISSAMBURU ETA OXALDE, BI «GORRI»

F. B. LARZABAL

Hemeretzigarren mende ondarrean bereziki, Ipar Euskal-Herrian izan da gorri mota guzietarik. Norbait, errepublikanoa zen ber, gorria zen. Errepublikanoetan ere orotarik ba zen. Batzu gorrailak, besteak gorriak, zenbait gorri-gorriak ere, denak apezetaz gaizki ikusiak, apezzeria gehiena erregetiarra eta bonapartista zelakoan.

Errepublikanoak liberalen alde, erregetiarrak eta bonapartistak, hots «xuriak», karlixten sustatzaile, zer kalapita bideak! Denen artetik, euskara zen naski irabazdun ateratu.

Orduko neurtizlarietarik biga bederen gorriak ginituen: J. B. ELISSAMBURU eta OXALDE. Lehena Elizaren ohore guziekin lurperatu ba zuten ere, bigarrena apezik gabe eraman zuten azken egoitzarat.

I. J. B. ELISSAMBURU «PIARRES ADAME»

Ez dugu hemen Elissambururen bizitzaren aipatzeko xederik. Antonio Maria LABAYEN-i esker ederki ezagutzen dugu. Bainan, ba da «bainan bat»: Labayen-ek ELISSAMBURU biziki maitatu duela eta «elissamburulatriarat» erori zaigula.

Bere euskal literaturaren historioan, Luis Villasantek dio hogoi ta hiru titulu Elissambururen gain Labayen-ek eman dituela et ba ditazkela ere bertze zenbait. Bai ote? Eta kontrarioa balitz? Funtsean, balitzik ez da, problema bakarra da hogoi ta hiru horietarik zoin diren egiazki gure saratarrarenak.

Euskal literatura, jakitatezko gauza bat behar ginuke, ez fedezko gauza bat. Hemen iduripenak ez du lekurik, frogak bai.

Zer lekukotasun sinesten ahal dugu? Har dezagun Villasanteren literatura edo Estornes Lasataren enziklopedia, beti oinarri bera dugu: Antonio

Maria Labayen. Alta, bai Louis Dassance zenak eta bai Piarres Lafittek oinarri horren azpia zilatzen hasia dute.

Lan hunen helburua da zerbait gehiago Elissambururen gain ezartzea, bainan lehenik «duda metodiko» bat bederen Labayenen sasia behar dugu sartu.

Elissambururen obrak direla erraten ahal dugu, bere bizi denboran hala agertu direnak. Lan horiek bere izenak edo izen ordeaz izenpetuak dira. Bainan, zoin izen orde? Labayenek zortzi bederen ematen dizkio: «Harluxe», «Saratar bat», «Piarres Adame», «Darrupe-Harluz», «Doyarزابال», «Salla-berry», «Lewy d'Abartiague», «Ziburuko Xantrea»¹. Urrunago ikusiko dugun bezala, oraindik ez da *bat baizik* zinez froga ditakenik, Elissamburuk «ofizialki» erabili duenik: *Piarres Adame*.

Louis Dassance zenak ederki erakutsi zuen zer zitakeen izen orde horren iturria: haur denboran Elissambururen familia bi etxetan egona zen Saran, «Piarres-enean» eta «Adametan».²

Urrunago joan gabe, lau zerrenda konpara ditzagun: Labayenen lanetako, Añamendi Editorialaren Enziklopediakoa, Baionako erakustokian den Elissambururen esku-idatzikoa eta «Elissamburu» edo «Piarres Adame» izenekin agertu obrena.

J. B. ELISSAMBURU-ren hitz neurtuzko obrak

LABAYEN-en zerrenda	Enziklopediako zerrenda	Esku-idatziko izen gabeak	«ELISSAMBURU» edo «PIARRES ADAME» izenpetuak
1) Nere etxea edo laboraria	Bai	Bai	Bai
2) Apexa eta lorea	Bai	Bai	Bai
3) Maria	Bai	Bai	Bai
4) Gizon zuhurra	Bai	Bai	Bai
5) Agur herriari	Bai	Bai	Bai
6) Aingeru bati	Bai	Bai	Bai
7) Lehen eta orai	Bai	Bai	Bai
8) Eskuara eta Eskualdunak	Bai	Bai	Bai
9) Maite zaitut	Bai	Bai	Bai

1. Izen orde zerrenda hori «Añamendi» Editorialaren Enziklopediakoa da. Labayen-en lanetarik hartua.

2. 1969-eko «Gure Herrian». Elissamburutarren gainean asko xehetasun, Louis Dassance zenak bilduak. Ikus ere P. Lafitte-en artikulua 1953-ko «Gure Herrian».

LABAYEN-en zerrenda	Enziklopediako zerrenda	Esku-idatziko izen gabecak	«ELISSAMBURU» edo «PIARRES ADAME» izenpetuak
10) Lau andren pesta	Bai	Bai	Ez
11) Biba Frantzia	Bai	Bai	Bai
12) Xori berriketaria	Bai	Bai	Bai
13) Eskalduna	Bai	«Saratar koplari bat»	Ez
14) Solferinoko itsua	Bai	Ez	Ez
15) Laboraria	Bai	Ez	Ez
16) Oraiko neskatxa batzu	Bai	Ez	Ez
17) Tan tan ratan	Bai	Ez	Ez
18) Eritegian	Bai	Ez	Ez
19) Xori kaiolatik ihesi joan dena	Bai	Ez	Ez
20) Gazte hiltzera dohana	Ez	Ez	Ez
21) Artzaigoa	Ez	Ez	Ez
22) Emazte edalea	Ez	Ez	Ez
23) Dantzaria	Ez	Ez	Ez
24) Ez	Kriolinak	Ez	Ez
25) Ez	Amets	Ez	Ez

Ohar bat: esku-idatzian bada ere «Xuriko», «Zaldubi» izenpetua.

Baionako Erakustokiko esku- idatziaren problema

Elissamburu Sarakoarena dela, dudarik ez da. Hamalau kantu ba ditu eta ere «Piarres Adame» eleberri tipia.

Hamalau kantuetarik, hamabi ez dira izenpetuak. Bat, «Eskalduna», izenpetua da «Saratar koplari bat» eta beste bat, «Xuriko», sinatua da Zalduby. Hamabi horietarik hameka bederen Elissambururen bizi denboran «Elissamburu» edo «Piarres Adame» sinadurarekin.

Orai, noiz eta nun agertu ziren kantu horiek ikus dezagun.

1. Nere etxea edo laboraria

1862-ko Urruñako garrait aldian aipamen bat bakarrik. Ez da izen orde problemarik.

1877-an, José Manterolaren «Cancionero Vasco»-an. Elizamburu izenpetua.

1883-1884-eko «Revue des Basses-Pyrénées et des Landes»-eko alean. J. B. Elissamburu, Saratarra izenpetua.

1887-an, abendoaren lauan, «Réveil Basque» astekarian. Piarres Adame Saratarra izenpetua.

1890-ean, «Réveil Basque» berean, bainan xuberotarrez. Ez da izenpetua.

1892-an, «Eskualdun kantarian». Liburuxka hau Goyhenetche medikuak egin zuen soldado joaiten ziren Euskaldunentzat. Goyhenetche Guilbeauren etsai politikoa zen eta Donibane Lohitzuneko auzapezgoa hartu zion. Bozketan irabazirik, bistan da! «Eskualdun kantarian» izenpetua da Elissambourou.

Kantu hau beste ehun tokitan argitaratua izanda bai Ipar aldean eta bai Hego aldean.

2. Apexa eta lorea.

1862-an, Urruñan, lehen saria. Iduriz izen orde problemarik gabe.

1883-1884-eko «Revue des Basses-Pyrénées et des Landes»: izenpetua da Piarres Adame Saratarra.

3. María.

1866-an, lehen saria Saran. Izen orde problemarik gabe.

1878-an, «Cancionero Vasco». Izenpetua Elizamburu.

1885-ean, «Revue des Basses-Pyrénées et des Landes»: J. B. Elissamburu Saratarra izenpetua.

4. Gizon zuhurra. (Zapataina edo Gizon zuhurra).

«Piarres Adame» eleberrian agertzen da. Bainan lehenago argitaratua izan da Manterolaren «Euskal-Errian», 1882-an. Euskaraz izenpetua da J. B. Elizamburu. Espainolera Manterolak itzuli zuen. Ipar aldeko «Eskualduna» astekariak argitaratu zuen ere 1900-eko otsailaren 2-an «Piarres Adame» izenpetuz.

5. Agur herriari. (edo Agur herri maiteari).

1883-1884-eko «Revue des Basses-Pyrénées et des Landes»-ean. Piarres Adame izenpetua.

1887-an, Manterolaren «Euskal-Errian». Euskaraz izenpetua Piarres Adame Saratarra. Frantsesezko itzulpena izenpetua J. B. Elizamburu.

1892-an «Eskualdun Kantarian». Ez da izenpetua.

6. Aingeru bati.

1880-ean, «Cancionero vasco»; J. B. Elizamburu izenpetua.

1883-1884-eko «Revue des Basses-Pyrénées et des Landes»-ean J. B. Elissamburu Saratarra izenpetua.

1884-eko «Eskualdun kantarian», Elizanburu izenpetua.

1898-ko «Eskualdun kantarian», Elissamburu izenpetua.

7. Lehen eta orai.

1879-ko «Primeras fiestas euskaras donostiarras»-etan saristatua. Izenpetua J. B. Elissamburu.

1885-eko Manterolaren «Euskal-Errian» Piarres Adame Saratarra izenpetua.

1887-eko apirilaren 24-ean, «Réveil Basque» astekarian. Piarres Adame izenpetua.

8. Eskuara eta Eskualdunak.

1882-an, «Revista Euskarán». Piarres Adame izenpetua (dio Jon Bilboaren bibliografiak).

1882-an; Manterolaren «Euskal-Errian». Euskaraz Piarres Adame izenpetua, frantsesezko itzulpena ere. Espainolera Manterolak itzulia.

1890-ean, «Réveil Basque» astekarian, izenpetua Piarres Adame.

9. Maite zaitut.

1885-ean. Esku idatzian gauza bat bakarrik: 1/10/1885.

1886-an, «Revue des Basses-Pyrénées et des Landes»-ean, Euskaraz izenpetua Piarres Adame Saratarra eta frantsesezko itzulpena ere bai.

1892-eko «Eskualdun kantarian» ez da izenpetua.

11 eta 12 «Biba Frantzia» eta «Xori berriketaria» 1991 «Eskualdun gasetaren Almanakan». Lehena izenpetua Elissamburu eta bigarrena «Piarres Adame» (Elissamburu).³

3. Xuriak eta gorriak berdin frantses abertzaleak ziren. Almanaka horrek, xurien almanaka horrek, huna Elissamburu gorriaren «Biba Frantziak» zer dion: «Duela hogoi urte Frantziak zapako bat izan du izigarria. Geroztik hainitz lan eta sakrifizioaren gostuz harmada bat egin du leheneko kurajerekin nombrea eta indarra dituen.

Diogun beraz laxoki Murde Elissambururekin: Biba Frantzia! Ezen jada apur bat altxatu da eta oraino hobeki altxaturen gobernamentu on batek... egingen duenen Frantziako haur guzien batasuna.»

Azterketa huntarik zer atera dezakegu?

1. Elissambururen izen orde «ofiziala» Piarres Adame zela.
2. Izen, orde hortaz izenpetu lanak Elissambururenak direla, haren bizi denboran agertu direnak bederen.

Frogarik gabe Elissambururen gain emanak izan diren obrak

«Lau andren pesta» esku-idatzian ez da izenpetua. Ez dugu erraten ahal Elissambururena dela. Ez ukatzen ahal ere. Frogak ikus eta sinetsiko.

Ikus dezagun «Eskaldunaren» kasua.

1867-ko Sarako garrait aldian ateratua. «Saratar bat» izenpetua. Esku idatzian «Saratar koplari bat» sinatua.

1882-an, Manterolaren «Euskal-Errian»:

— euskaraz, izenpetua «Sarako koplari batek egina».

— frantsesez: J. B. Elizamburu.

— espainolez: J. Manterola.

1885-ean, Pariseko Lemerre argitaldarian, Octave Lacroix olerkariak liburuxka bat agertarazi zuen. Hor, bi pertsu hauk irakurtzen ditugu:

«Ez naiz ihartu, ez ihartuko, segur dut bizia.

Ez badautet azpian zilatzen mendia.»

Eta izenpetuak dira J. B. Elizamburu!

Aski dea «Eskalduna» Elissamburuk egina duela frogatzeko?

Octave Lacroix-ren lanak izena du «Euskal-Erria». Manterolaren agerkiak bezala. H-ik gabe. Gehiago dena «Elizamburu» hori Manterolaren ortografiatzkoa da. Beraz Lacroix gorago aipatu itzulpenetik arizan da.

Ez ditugu bederazka harturik gainerako kantu guziak Labayenen zerrendatik kenduko. Batzuentzat frogatua izan da beste koplari batzuenak direla, ez dugu besterik erranen.

Beraz, Labayenen lanak eta hortan oinarrituek bakanaldi bat ona behar lukete.

Alor huntan bakantzea eta jorratzea gauza bera izanik ere!

J. B. Elissambururen hitz laxozko obrak

«Piarres Adame» eleberri ttipia dugu gehienik ezagutzen. Baina badira politika maileko idatziak ere, ikusiko dugun bezala.

Iduriz lehen aldikotz, «Piarres Adame» «feuilleton» bezala agertzen da Donibane Lohitzuneko «La Nivelle» deitu aldizkarian.

«La Nivelle» 1883-ko ekainean sortu zen. Idazle-nagusia zuen J. B. Deluc. Errepublikanoen aldekoa, gorria, 1884-ean Guilbeau-ren herriko gizon zerrenda sustatu zuen. Pau-eko bibliotekan den «La Nivelle» 47-garren alean bukatzen da. Bainan 1886-Ko urriaren 10-ean arrapizten da, Jules Louit duela buru. Urriaren 14-ean hasten da «Piarres Adame»-ren argitaratzen. Bainan Pau-eko seria 1886-eko hazilaren 14-ean bukatzen da. Orduan «Piarres Adame» bostgarren kapituluan da.

Beti «feuilleton» bezala «Piarres Adame» «Le Réveil Basque» Berdoly-ren astekari errepublikanoan agertzen da. Hasten da 1887-ko ekainaren 26-an eta 1888-ko martxoaren 18-an bukatzen. «J. B. E. Saratarra» izenpetua da.

1888-an beti, «Garet» imprimarian, «Piarres Adame» argitaratu zuten. Liburuxka hori Vinson-en bibliografiak aipatzen du.

Beraz, Elissambururen bizi denboran, hiru aldiz bederen «Piarres Adame» argitaratua izan da eta beti errepublikanoen inguruan.

Geroztik, Piarres Lafittek, 1946-ean argitarazi zuen irudi zenbaitez alegeraturik.

Politika sailean, J. B. Elissamburuk bi artikulua bederen egin ditu. Lehena Vinson-en bibliografiak aipatzen du 751-garren orrialdean: «2 oct. 1880; Article politique, signé Piarres Adame (Elissamboure)». Ez da dudarik J. B. Elissamburuk idatzia dela. Bigarrenarentzat ez da xehetasun handirik: 1881-eko aboztuaren 11-an artikulua politiko bat ba dela bakarrik. Hau ere «Piarres Adame» izenpetua. Bi artikulua politiko hauk «L'Avenir des Pyrénées et des Landes» agerkarian argitaratuak dira. Huna bi artikulua horiek.

Errepublika bakea da (Avenir des Pyrénées et des Landes). 1880-eko urriaren 2-an).

«Badakizue, herritar maiteak, orai duela hogeita dotzena bat urte Frantses populuak unatua zelakotz beti lanean artizeaz errege baten eta haren inguruan milaka bizi ziren agur-egile alferren asetzeko, haizatu izan zituela errege eta bertzeak, eta gobernamentuzat hautatu Errepublika.

Badakizue ere, Errepublikaren buruzagi gisa ezarria izan zela gizon bat, Napoleon, zeinak, gobernamentuari fidelitatezko juramentua egin ondoan, Frantzia trahitu izan baitzuen, populuaren ganik zituen indarrak populuaren kontra ezarri.

Ez duzue ahantzi oraino, ez apur batez ahantziko ere, Eskualdun maiteak, zer ondorioak izan dituen guretzat, Frantzia gure herri maitearen gizon haren menean ezartzeak eta uzteak!

Erran daiteke gizon hartaz: odolean igerika tronurat igan ondoan, lohi beltzean eta ongarrian botatu duela azken hatsa. Hala zuen merezi, hala izan du!

Eta hori deus ez laiteke, herritar maiteak, ez balu denbora berean eta gisa guzietz Frantzia errekan ezarri aintz urterentzat. Zenbat ehun mila gizon gazte gerlan xahutuak izan direnak gizon gaizkor hura dela medio! Eta, zenbat mila miliun ez zaizko gosta Frantziari gizon horrek hemezortzi urtez egin-arazi dituen gerla guziak, eta bereziki azkeneko gerla ikaragarri bezain desohoragarri hori!

Orai, ikusiak ikusi, fede oneko gizon bakoitza bere baitan sartzen delarik, bortxatua da aitortzera gauza izigarri horiek guziak gertatu izan direla gure ergelkeria edo zorokeria dela medio. Ezen, gorago erran dudan denbora hartan, ez baginu utzi kentzera geronek hautatu ginuen gobernamentua, erran nahi baita Errepublikak, ez zen erori den bezenbat zorigaitz Frantziaren gainerat eroriko. On da, Eskualdun maiteak, denbora hartan bizi zirenak orroit daitezten eta geroztik sortu direnak ikas dezaten zer gezurren medioz gizon gaiztagin batek liluratu eta lokar-arazi izan zuen populua, gero populua hartaz nahi zuen guziaren egiteko.

Huna zer erran eta sinets-arazi zuen:

Errepublikarekin beti gerla izanen duzue, eta Enperadore bat nagusitzat hartuz, bakean biziko zarete.

Orai ikus dezagun zer gisetan gizon horrek ohore egin izan dion eman zarokun hitzari, Frantzia zango-pean atxiki duen hemezortzi urte izigarrietan.

1852-a zen bakea hitz eman zarokun urtea, eta 1854-ean, erran nahi baita bi urte iragan gabe, egorri zituen ehun eta berrogoi ta hamar mila gizon gazte beren odol, haragi eta hezurrez Krimeako mendi, zelai eta erreken gizontzera.

Zer zitzaion hari? Guk gerla hartan galdu ditugun seme, anaia, ahaide edo adizkideak ez zituen gizon hark ezagutzen ere!

Geroxago egin zuen Italiako gerla. Han ere zenbat odol frantses ez zen ixuri.

Handik ondoan Erroman ezarri zuen harmada bat Aita Sainduaren zerbitzuko, gauza hori Frantziari behatu balitzaio bezala.

Gero, beti bere hitzari ohore egiteko, egin zuen gerla Sirian; gero berriz Xinan; ondoan Koxinxinan; segidan Kabilian, Mexikan, eta azkenekotz, 1870-an, Alemaniaren kontrako gerla ikaragarri hura, zeina izan baita guretzat gaztigu bat Jainkoak egorri darokuna, merezi ginuen bezala, gure saristatzeko eta gure zorokeria ahalkegarritik aterarazteko.

Ikasi dugu gure gostuz, nere lagunak, zer ondorioak izan dituen guretzat gure buruen ezartzeak nagusi baten gatibo, haren gauza batzu izan bagine bezala.

Eta, bertze alde, zer ikusten dugu? Beti gerla eman behar zarokun gobernamentu hark, erran nahi baita Errepublikak zenbat gerla eman daroku

hamar urte huntan? Non, norekin eta zertako eginen dugu gerla? Nork hartuko du bere gain gerla baten han edo hemen hastea, Frantses populuak berak hala galdetzen ez badu? Eta populuak zertako nahiko du gerla?

Ah! zorigaitzez gertatzen balitz populu bat aski erroa, aitzaki tzar baten medioz, gure bortxatzeko gerlan hastera, ez da dudarik ez ginukela berehalakoan uko-eginen, edo amor-emanen, zeren eta Frantzia ez baita izan egundaino orai den bezain azkar, nahiz ez duen ere hainbertze galdetzen nola bakea beretzat eta bertzentzat. Bainan bertze populuak ere zer abantail lukete guri gerla eginez?

Gerla egundainotik, nagusi mustro batzuen obra izan da, ez populuena obra; eta, Jainkoari esker! Frantses populua bezala bertze populuak ere hasiak dire begien idekitzen eta badakite zer bidegabeak ekarri diozkaten, lehengo denboretan gaiztagin handi-nahi batzuen ordena edo kontseilu tzarrek.

Hitz batez, Eskualdun lagun maiteak, nor nahi bezain azkar delarik gerlaren egiteko, hala behar balitz, Frantziak galdetzen duen lehen gauza da: Bakea.

Gauden beraz prestu azkeneko hamar urte hautan bezala, segi dezagun hasi dugun obra handia, lagunduz gure indar guzietz geronek hautatu dugun Gobernamentua, Oxala! Ez baginu egundaino bertzerik ezagutu!

Gure prestutasunaren medioz atera dugunaz geroztik gure Frantzia maitea gaiztagin tzar batzuek ezarri zuten errekatik, elgar adi dezagun orai arte bezala eta gure indarrak gero eta gehiago emendatuz guanen dire. Orduan izanen gare hain prestu eta hain azkar non ez baita gertatuko lurreen nazione bat guri gerla egitea gogoratuko zaionik ere.

Eta orai: Biba Frantzia!

Biba Bakea!

Erran nahi baita: Biba Errepublika!

Piarres Adame

Eskualdun batek Eskualduneri (L'Avenir des Pyrénées et des Landes. 1881-eko hazilaren 8-an).

«Oraino zenbait egun, herritar maiteak eta boz emateko adina dugun guziak deituak izanen gare gure herriko etxetara, gure deputatu berrien hautatzera.

Orai artean, Baionako arrondizamentuak ez zuen egortzen depuratu bat baizen Parisera. Orai, lege berri baten arabera, behar ditu egorri bilkura hortara bi deputau; bainan, halere, ez dugu izanen herri bakotxean izen bat baizen emateko zeren batek izendatua izan behar baitu Baionako eta Ustari-tzeko kantonamenduez, eta bertzeak, Doni Joaneko, Ezpeletako, Hazparneko, Bidaxeko eta Labastidako kantonamenduez.

Bi deputatu behar ditugularik, hiru gizon badire beren buruak eskaintzen dituztenak gure izenean guateko deputatuen ganbarara.

Ikus dezagun berehala, herritar maiteak, nor eta zer diren hirur gizon horiek.

Baionako eta Ustaritzeko kantonamenduetan xoilki bat agertzen da; hura da, dakizuen bezala, Plantié jauna, Baionako hauzo apeza.

Jaun hortaz solas guti erranen dugu, zeren eta, Jainkoari esker, Baionan eta inguruko herrietan, guziek ezagutzen baitugu aspaldiko denboretan jaun horren izena eta izana. Plantié jaunaz erranen dugun guzia izanen da beraz hauxe: «Plantié jauna de Errepublikano on bat, zeinarekin nihor ez baita atrebitzen bere indarren negutzera.»

Bertze bortz kantonamenduetan, erran nahi baita Doni Joaneko, Expeletako, Hasparreneko, Bidaxeko eta Labastidako kantonamenduetan badugu hauta bi gizonen artean. Bi gizon horien izenak: Lafont jauna eta Labat jauna.

Aipa dezagun berehala bi jaun hauk nor diren eta zer nahi duten.

Hasteko, nor da Labat jauna? Zer nahi du jaun horrek?

Jaun Labat, ezagutzen dutenentzat da jaun aberats eta prestu bat, Napoléon zenaren adiskide handi bat.

Nola emperadore horren ganik ardietsi izan baitzituen ohore handiak, eta hortakotz obligazione handiak baitzituen, Napoleonen aldera, beti jarraiki izan da, gizon ohorezko batek jarraiki behar duen bezala, bere ongi-egilearen banderari.

Enperadore izana hil denean eta haren ondorio bakarra hila izan denean, zertako jaun Labat ez da itzuli Frantziak hautatu duen aldera? Zertako ez da jarri, bertze hainitz bezala, Errepublikaren banderaren azpian? Egun bere burua eskainiz, zer eskaintzen daroku? Labat jaunak hitz ematen daroku, hura izendatzen badugu, bere egin ahal guziak eginen dituela, orai artean bezala, Frantziak hautatu duen gobernamentuaren trabatzeko; ez du erraten Errepublikaren artikitzeo xederik baduela, zeren baitaki horren eta hori bezalakoen indarrak deus guti direla Frantziaren nahiaren kontra; baina jaun Labatek aitortzen daroku klarki horrek ez duela maite Errepublika, eta ez da egin behar dudarik jaun Labatek ez duela lagunduko Frantzia, gure herri maitea, horren adiskide handi zorigaitzezko Napoleon Enperadoreak artiki duen errekatik.

Horra zer nahi duen Labat jaunak!

Ikusten duzue, herritar maiteak, ez dela jaun hori guk behar dugun gizona.

Orai, nor da Lafont jauna?

Lafont jauna da Baionako miriku hoberenetarik bat, oraino berrogoi urte ez dituen gizon jakintsun eta prestu bat, fortunaz, izaitzez eta ohorez ausarki

duena, Frantzia eta Frantziaren gobernamentua, erran nahi baita Errepublika, kartsuki maite dituen, eta eskaintzen darokuna, Baionan duen izaite ederra utzirik, guatera gure intresen debekatzera eta, denbora berean, Frantziaren laguntzera gero eta gorago igaten.

Horra nor den jaun Lafont! Egiatzko Errepublikano bat.

Eta orai, Lafont eta Labat jaunak nor eta zer diren erran ondoan, ez dut zueri erran beharrik, Eskualdun herritar maiteak, nori behar diogun eman gure boza. Badakigu Lafont jauna gobernamentuaren adiskide handia dela; badakigu fagoreak adiskidentzat direla eta, jaun Lafonek ardietsaraziko darokula, behar orduetan, gobernamentuaren ganik gauza frango, Labat jaunak, gobernamentuaren etsai gisa, ardiets ez lezakenik. Nondik izan daiteke bertzela? Ez ote dugu bada, geronek ere egiten adiskide batentzat etsai batentzat egin ez ginezakena?

Errepublikak, herritar maiteak, erran nahi du justizia, Libertatea, Berdintasuna legearen aitzinean, anaiatasuna, lana eta Bakea! Horra zertako egiatzko Eskualdunak maite duen Errepublika! Zein da oraino Eskualdunen artean ez dakiena gure aitaso zaharrek beren mendietako etxoletan zenbat artarekin begiratu izan duten, mendèren mende, Libertate saindua? Jainkoaren ondotik gehienik maite zutena Libertatea zen!

Orai ere Eskualduna erraten duenak erraten du Errepublikanoa zeren egiatzko eskualdunaren paparo-pean errepublikano on baten bihotzak pil-pil egiten baitu!

Beraz, Eskualdun lagun maiteak, heldu denean aboztuaren hogoi eta bata, guazen guziak gure bozan ematera Lafont jaunari, erraten dugularik goraki:

Biba Frantzia!

Biba Errepublika!

Piarres Adame

Gure Elissamburu «paparo gorriak» besterik idatzi ote du? Behar bada. Hasteko, «l'Avenir des Pyrénées et des Landes» hortan ikusten ahal da, zenbait urtez segurik, Elissamburuk gaitzeko mintzaldiak egiten zituela uztailaren 14-ean, Sarako eskola laikoan ziren haurren aitzinean eta beti euskaraz. Idazten ote zituen?

II. J. B. OXALDE

1953-an «Euskaltzaleen Biltzarrak» argitaratu zuen «Oxalde», Jules Moulier «Oxobi-k» idatzi liburuxka bat.

Koplari famatuak ez zuen naski bere bizian fedea eta apezek erakusten zitzaizoten bide xuxena segitu. Pestaz pesta, ostatutik ostatura, pertsuak baizik ez gogoan, emaztea eta haurrak abandonatuak... Ameriketara... segur barkamendu gotor baten beharra ba zukeen azken hatsa bota zuelarik.

Oxalderen azken egunaz Oxobik zenbait xehetasun ematen daizku:

«Haren ehortzteaz bakar batzu dira orroitu Bidarrin.

Lau guardek ereman zuten gorputza apirio azpiraino. Han haatik...

Harguindeguy jaun bikarioa eta Antchordoquy jaun mera ez bide ziren soberarik akort.

Biak tematu eta, baizik eta hau, baizik eta hura, egun hartan biak itsuski tematu.

Arratsaldearekin, bortzak irian, ehortzi zuten Oxalde, apezik gabe.

Nunbeitik ere, hobirainokoan kukuak makur jo!

Ez da orai Oxaldez orroitzapenik ageri Bidarriko hil-herrietan.»

Kuku horren «makur jotze» hori bitxia dugu. Zer errango zuen Oxobik? Bere gaizki eginen pagatzen hasten zela Oxalde? Eta zendako Jainkoa mendekatuko zitzaikon? Gaizki bizirik bakarrik ala gaizki pentsaturik ere?

Alabainan, Oxalde ere gorrien aldekoa zen. Errepublikako presidentaren ohoretan pertsuak ba zituen eginak eta beste hurbilagoko errepublikano batzuentzat ere. Ez ote zen hori ezin barkatuzko kukua makur joarazi zuen bekatu hura?

Huna lehenik, 1881-ean, aboztuaren 13-an, «L'Avenir des Pyrénées et des Landes» agerkarian argitaratu zituzten pertsuak.

MURDE LAFONT DEPUTATU NAHI DUGUNARI

*Abisu emaiten dut Heskaldun orori
Deputatu hautatzen behar gira ari
Eta presentatzen zauzu gure zerbitzari
Baionako miriku Lafont gazte hori*

*Adinez gazte eta bertutez azkarra
Edukazione hori ez abal du txarra
Baionako hirian da partikularra
Guziek baginuke jaun horren beharra*

*Aditu bazinute nik bezala atzo
Gure erlijioneaz nola zauzun mintzo*

*Jaunaren zerbitzua ez baitzaio gaixto
Hortarik atera du anitz solas gozo*

*Beraz galtatzen dauzu, in dazue boza
Lagunduko zaituztet ahal bezen ontsa
Nahiz afizioa hain den lanjerosa
Partider bihurtzera batere ez lotsa*

*Lagunduko nauzue ikusteko behin
Segur hartuko dugu guziet atsegin
Han direnak ez dira asto edo sorgin
Partida nungo duten behar dute jakin*

*Heskualdunak deitzen tut anaia arreba
Baldin joan behar baniz harentzat lanera
Han ikusiko baitut artaz den atera
Ez baitut barkatuko makurrik sobera.*

*Deusik nahi duiena bai niri adreza
Eskutatuko baitut nahiz izan presa
Zuhurra den presunak konsidera beza
Ez dela enetako hau eliza pesta*

*Jaun horrek ez ahal du borondate hotza
Gure zerbitzatzerat ez denean lotsa
Lagundu nahi gaitu ahal bezen ontsa
Eman dezogun orok bihotz onez boza*

*Gure alderat baita amodioz bero
Bai eta hanitz gauza baitu egin gogo
Aldi huntan joan dadin bihotz onez bego
Ikusiko baitugu zer jinen den gero*

*Bere onetan ere da entseiatuko
Hitzari ez baitio segur faltatuko
Gauza nola heldu den baita agertuko
Obra hor izanen da guzien lekuko*

*Jauna lagun gaitzazu zuk egin abala
Zabal zazu kanpora barneko indarra
Kargatuia baitago Heskualdun zaharra
Arintzeko bailuke laguntza beharra*

Ez da halere pentsatu behar Oxalde egundainotikako errepublikano kartsu bat zenik. Ideologia laburra zukeen. Erran dugun bezala Carnot presidentaren ohoretan pertsuak egin zituen hil zutelarik, bainan Napoleon hirugarrenaren tronurat heltzean ere ez zen ixilik egona:

*«Biba Napoleon guzien Presidenta
Zuk egin daukuzu obra bat etselenta
Tenoria kausitu
Ez baitzen beranta
Afera xarmanta!
Deituren zitugu
Zitoienen aita
Hala zuzena baita»⁴*

Inperioaren denboran Napoleonen alde, Errepublikarekin eta errepublikano, hil artio «gorri» egon zen naski. Dena den huna laurogoi urtetan eman zituen kantuak:

Eskual Herria atzarri da
(Belzunzen airean)

*Egun goizean entzuna dut uste gabeko berria
Dudatuia izan banaiz, ote denez egia
Bozkariotan sartu dela gure Eskual Herria
Deputatu pasaturikan Musde Berdoly handia*

*Hori jakin dudanian, bihotzez egin dut irri,
Alegrantzian laudatu dut: Biba! Biba Berdoli!
Aita on bat izaitea guretzat baita konbeni
Bera nahi baita izan anaien zerbitzari.*

*Zu zira Baxe Nabarren lexitimo bakarra
Jainko jaunak eman dio zuzenari indarra
Guk ere egin dautzugu fagore bat azkarra
Otoi! otoi! lagunt zazu jende beharra!*

*Biba Musde Berdoly eta Harriaga Morroxko!
Biak ere guretako eztira izanen gaixto
Partidetarik izan duzue ainitz kunplimendu gozo
Horra nun dauden eroriak izotza bezain fresko*

4. Kantu hau osorik emana da Otxobiren liburuxkan.

*Zuen eskura uzten dugu, jaunak, Eskual-Herria
Idokazue guretako amodio garbia
Arrazoina heldu bada, ahal bezala balia
Ezta beti izan Partidaren aldia*

*Eman nahi omen zuen bibiari dretxoa
Laborari azkarrentzat etzen berri gaixtoa
Hola ere ezin bizi probe behar gaixoa
Erdira ezin hel eta nola paga osoa*

*Hola hola ere badu despendiorik aski
Gebiago egitea gehienentzat gaizki
Aberatsak beti danik onez jelosi
Ahal balitz nahi luzke bizirikan buluzi*

*Zoazte beraz orai deskantsu, Ganbara berri hartara
Oraiko ideia onetik ez zaizte aldara
Bihurt zazie partidari merezi duen bezala
Hola eginez geroztik, kontent izanen gara.*

*Beti danik egiak dira lehengo erran zabarrak
Espakurik eztuela hala gertatu beharrak
Afruntua egiten du sasi peko belarrak
Bare xuriak hura hunki ta laster sartu tu adarrak*

*Erlijionea izanen zela Frantziatik kenduia
Jende ximplek hortan zuten hartu sendimendua
Hura kenduz geroztikan akabo zela munduia
Errepublikaz onartua da gure Aita Saindua*

*Juan behar duzue, Jaunak, orai bezala berriz
Expaitugu abantailik zuen sankatzen ariz
Orai ere izan duzue gutaz laguntza ainitz
Faltarik eztu eginen gero ere segur niz*

*Fanfaronek egin daukute aurten sobera musika
Bainan ez ginen hargatik bihotzetik kilika
Laster ihardetsi dugu, Jaunari oihuz hasi'ta
Otoi benedika zazu Frantzian Errepublika.*

Jean-Baptiste Oxalde
Poète basque âgé de 80 ans

Pertsu hauek 1893-ko irailaren 3-ko «Le Réveil Basque» astekaritik hartuak dira. Aboztuaren 27-an jadanik argitaratuak zituen Baionako «L'Avenir des Pyrénées et des Landes» agerkariak.

Oxaldek aipatzen dituen bozetan Berdoly-k garraitu zuen Louis Echeverry «Eskualduna»-ren jabea eta Saint-Martin Harriague «Morroxko»-k aldiz, Diharassarry Ortzaizeko erretor famatua. Lehena bonapartista zen eta bigarena erregetiarra.

Otxalderen kantu horiek ez dute, behar bada, euskal literatura hanbat aberastuko, baina denbora baten lekuko bezala bederen hartzen ahal ditugu.

III GORRIAK ETA EUSKAL KULTURA

Xurien eta gorrien arteko auzia ez da behin ere behar bezala aztertua izan Ipar Euskal-Herrian. Gorriak euskararen kontra eta xuriak alde? Ez da hori egia. Oro har, ixtorioan zehar bai xurien eta bai gorrien sistema Euskaldunen iresle izan da eta Erromako Eliza ofizialak beti tratuak egin ditu Estatuekin eta ez populuekin.

Goi maileko frantses klaseen arteko borroka hortan euskarak irabazi zuen agerkarietan eta bozketan erabili zutelakotz.

Gorriak kasetaritzan hasirik, xuriak ere lotu ziren eta euskal pestetako zoingehiagokoetan xuriek gorrien obrak gaizki jukatzen zituztelakoan, gorriek «Association basque» taldea eraiki zuten eta ere «Association Labourdine» elkarte euskal pesten antolatzeke.

Hain zuzen Oxalderen azkenik aipatu pertsuak agertu ziren hilabete berean izan ziren Ustaritzeko Euskal Pestak. Gorriek antolaturik.

Euskaltzale gorri ezagutuena bildu ziren: Guilbeau, Sallaberry Mauleko notari kantu biltzalea, eta Hego aldetik Arturo Campion errepublikanoen adiskidea.

Ustaritzen lehen saria ereman zuen Baigorriko Pierre Dibarrart-ek. Berak egin «Artzaitza baten bozkarioak» kantua berak kantatu zuen. Bigarren saria Bonifacio Etchegaray donostiarrak ukan zuen bere «Baserria» rentzat.

F. B. Larçabal